

## **Ekitaldi akademikoa Ana Echaide Itarte omentzeko Nafarroako Unibertsitatea, 2013ko azaroak 27**

Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedraren mende erdia ospatzeko egin diren ekitaldiak bukatzen ari dira, eta orain omenaldi xume bat egitea dagokigu Ana Echaide Itarte irakasleari.

Zaila da – denbora gutxian laburbiltzea Ana Echaideren ekarpena hainbat arlotan. Baina saiatuko naiz hiru zertzeladetan bere ekarpenak azaltzen: bat, filologian; bi, bere gestio edo kudeaketan; eta hiru, bere gizatasun eta izaera profesionalean.

### **BAT) - Filologian, Ana Echaide Itarte irakasleak ekarri duena**

Dagoeneko aipatua izan da *El castellano y vasco en el habla de Orío* izeneko lana. *Languages in Contact* delako ikerketa ildoaren barruan kokatzen da hori. 1968an Ana aitzindaria izan zen gerora etorriko ziren antzerako lanetan oso aipatua izan zelako eta bertako metodologia erabilia izan zelako.

Lan ildo hori ederki aprobetxatu zuen berak hainbat urtetan filologo hispanikoekin landutako “Lingüística Vasca” delako irakasgaietan. Filologiako ikasle askok eta askok eskertu izan diote hain zentzuzkoa eta ezinbestekoa den irakasgai hori gozatu izana; besteak beste, euskara gehiago ezagutzea beharrezkoa da gaztelaniaren erabilera erreala ezagutu nahi badugu, batez ere gure inguruan non hizkuntzak etengabeko kontaktuan baitaude.

Bestalde, nik esango nuke Ana Echaide aitzindari bat izan dela Nafarroako euskalkien ikerketetan, Koldo Mitxelena zenaren irizpideei jarraiki. Ikerketa hori gainera, kanpo lanetik hasi zen: herriz herri ibili zen (behin baino gehiagotan entzun izan diot) aldean grabagailu astun bat zuela hainbat nafar euskalduni elkarrizketak egiten. Hirurogeita hamabi herritan egin zituen elkarrizketok, hirurogeiko hamarkada hartan, 1965ean hasita. *El euskera en Navarra: Encuestas lingüísticas* delako lanean argitaratu ziren lan haien emaitza batzuk. Gero Elkarrizketa horiek guztiak edo gehienak erabiliak izan dira eta aitzindariak izan dira Nafarroako euskalkiak eta hizkerak aztertzeko tenorean.

Bestalde, eta dialektologiarekin jarraiki, *Erizkizundi Irukoitza* delako lana ekarri nahi dut gogora, Mitxelenaren ekimenez eta Ana Echaideren lanez argia ikusi zuena 1984an, Eusko Ikaskuntzak kaleratua. Ez noa azaltzera zer den *Erizkizundi Irukoitza* izena duen ikerketa dialektologiko hori, baina dudarik gabe lan erraldoi baten emaitza izan da, handik urte batzuetara etorriko zirendako eredugarria, adibidez, dialektometria lanetarako oinarria izan delako. Lan horietan pilatutako esperientziak aukera eman zion gerora Euskaltzaindiak egin nahi zuen Euskal Herriko Atlas Linguistikoan parte hartzeko eta Nafarroako 10 herritako inkestak egiteaz eta transkribatzeaz arduratu zen Ana Echaide. Ez da lan makala!

Euskal filologiaren arloan egindako ekarpenak aipatze aldera, ez dut ahaztu nahi itzulpengintzaren arloan egindako lana. Aipamena baino ez da izango, baina gogoratu behar da itzulpengintzaren arloan ekarpen teorikoak eta praktikoak egin dituela Ana Maria Echaidek. Ekarpen teorikoen artean, besteak beste, zenbait ikastaro ditugu doktoradutza eta Filologia Hispanikoa egiten ari ziren ikasleei emandakoak. Praktikoaren artean, ezin aipatu gabe utzi, San Josemaria Escrivá, unibertsitate honetako sortzailearen

lanen itzulpena, nik neuk behitzat gozatu eta eskertzeko aukera izan dudana. Beste lan erraldoi bat, prozesuan dagoena oraindik eta dagoeneko emaitza oparoak eman dituen.

## **BI) Ana Echaide Itarte irakaslearen kudeaketa bere ibilbide akademikoan**

1964-65 ikasturtean hasi zen Ana M<sup>a</sup> Echaide Nafarroako Unibertsitatean lanean, artean Don Antonio Fontán Filosofia eta Letretako dekanoa zela, eta orduan tesia egiteaz gain euskarazko eskolak ematen hasi zen. 4 ikasle izatetik 200 ikasletik gora izatera igaro zen urte gutxitan. Euskara eskoletan Jose Basterretxea “Oskillaso” eta Pilar Gorostiaga izan zituen lagun zenbait urtetan.

Ezagutu ditut orduko ikasle batzuk. Nahiz eta garai hartan ni Iruñean ez nintzen bizi, harrigarria da zer nolako maitasunez gogoratzen dituzten garai haiek, orduan Nafarroako Unibertsitatea leku, ez bakarra, baina bai bakarretakoa zelako Iruñerrian euskara lantzeko helduen artean.

Ana Echaidek beti gogoratu izan du, eta uste dut guri ere komeni zaigula gogoratzea, Don Antonio Fontanek argi eta garbi zuela Nafarroan dagoen unibertsitate batek euskal hizkuntza eta kultura ikertu eta zabaldu behar dituela eta horregatik sortu zela Katedra hau.

1978. urtetik aurrera Ana Echaide konturatu zen Katedratik zenbait ikastaro eskaintzen has zitezkeela lizentziatuetako ikasleek “aukerazko ikastaroak” egin ahal zituzten, eta euren espedienteen ager zitezen. Horretan ere Ana Echaidek ederki probestu zuen egoera euskal ikasketak (Historia, Etnologia, Historiaurrea, Literatura eta Hizkuntzalaritza) ikasketa planetan txertatzeko.

1993an Espainiako Estatuan unibertsitatearen plan berriak jarri ziren martxan eta berriz ere, Ana Maria Echaide zuhur ibil zen jakin zuenean Unibertsitateak Titulu Bereziak eskaintzen ahal zituela profil jakineko aukera libreko irakasgaiak aukeratuz gero. 1994. urtean Euskal Ikasketen Diploma jarri zen abian Nafarroako Unibertsitatean Ana Echaideren ekimenez, batez ere, eta horretarako kudeaketa bikaina bezain inteligentea izan zuen diploma aurrera ateratzeko. Bologniako plan berria ezarri zenean, berriz, desagertu zen diploma eta, oraingoz ez dago hori ordezkatzeko duen ez titulurik, ez minorrik, ez profilarik, baina ba omen da plan bat irakasgai berriak txertatzeko.

## **HIRU) Ana Echaide Itarteren gizatasuna eta izaera profesionala**

Testigantza xume bat eskainiko dut labur-labur, azkenik.

Euskal Katedra aurrera ateratzeko, nahiz eta baliabide gutxirekin ibili den beti, jakin izan du pertsonak inplikatzeko Ana Echaide irakasleak.

Nik neuk, esaterako, tesiaren proposamen bat egin nionean hasieratik jaso nituen bere zentzuzko aholkuak eta hasieratik gomendatu zidan, adibidez, gaia literaturaren arlokoa zela-eta, Euskal Herriko Unibertsitatean doktorego ikastaroak egiteko. Geroak erakutsi dit oso aholku egokia (eta probidentziala) izan zela hura.

Inguruan izan dituen pertsonen, eta hau esperientziaz diot, askatasuna eta adorea ematen jakin izan du ikerketak aurrera ateratzeko eta burutzeko. Haren ekimenez, adibidez, Tesi baten defentsa euskaraz burutu zen lehen aldiz Nafarroako Unibertsitatearen historian.

Tesia Andres Iñigorena izan zen, egungo Nafarroako Euskaltzaindiaren arduradunarena<sup>1</sup>. Aurrekari hura segida baten esperoan dago oraindik.

---

<sup>1</sup> 1994an izan zen tesiaren defentsa hura. Handik bi urtetara Andrés Iñigok *Toponomástica histórica de Santesteban de Lerín (Regata del Ezkurra)* izeneko lana argitaratu zuen, Nafarroako Gobernuaren argitalpen zerbitzuaren bidez (1996).

Euskararen inguruko ekitaldiak bultzatzeko orduan (hitzaldiak, bertso-saioak, eta bestelako *performanceak*), beti egon zen niri eta edonori laguntzeko prest ekimena zuenari askatasuna eta adorea emanaz. Horri esker egin izan dira campus honetan (artean bera lanean zegoelarik eta gerora ere), euskal asteak, idazleen hitzaldiak, poesia eta bertso saioak, euskarazko argitalpenak eta euskarazko irratsaioak.

Hauek gauza guztiok handinahikeria tantarik gabe egin izan ditu bere ibilbide profesionalean. Erretiratu ere, isil-isil erretiratu zen.

Erretiro hartu eta hamar urte pasatu diren honetan, aitoren txiki hau egitea ezinbestekoa zen eta hona hemen nire ekarpen txoa. Nago aitoren bakarra ez dela izango, beste batzuk etorriko direla. Hala bedi.

Eskerrik asko, Ana, eta eskerrik asko, bene-benetan; mila esker entzule guztioi.

### **Erreferentzia**

BEGUIRISTAIN, M<sup>a</sup> Amor; BARANDIARAN, Asier (editores) (2006): *Cátedra de Lengua y Cultura Vasca. 40 años / Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedra, 40 urte*. Universidad de Navarra. Facultad de Filosofía y Letras, Pamplona